

HEMINGWAY: EHIZA

“Hemingway gizon ehiztari zuri handia.” Esaldi hau legenda Hemingwayanoetako beste erpinetako bat da. Egiari zor, autore amerikarrak txikitatik izan zuen gustuko ehiza eta izandako ia leku guztietan ehizatu zuen. Michiganan hasi, Amerika Mendebaldetik segitu, Espainia eta Italiatik pasa, eta Afrikaraino. Gainera, haren obran ehizarekiko erreferentziak ez dira gutxi. Afrikako muino berdeak (1935) dugu adibiderik esanguratsuen. Ez fikziozko entsegu honetan, 1933-1934. urteen tartean, Theodore Roosevelten lorratzari segika, Hemingway, Charles Thompson, Karl ezizena du nobelana, eta bere bigarren emaztearekin, Pauline Pfeifferrekin, azken honen osabak, Gusek, ordainduta hiru hilabeteko safarian bizitako esperientzia helarazten saiatzen da. Karlekin izandako lehiaketa da liburuaren muina, zeinek ehizatu animalia handiena. Safarira joan aurretik, azaroan izan zen Luis Quintanilla (1893-1978) margolariarekin Extremadura inguruetan ehizan. Lehenago, abuztuan, Donostian jokatu zen IV. uso-tirozko munduko txapelketan parte hartu zuen. Gudamendin jokaturako txapelketan Victor Sarasqueta (1912-1979) eibartarrarekin egin zuen topo.

Gure betaurrekoekin begiratu ezker, ehizarekiko jarrera anakroniko eta basatia gerta badaiteke ere, txikitatik ehizan ikasi eta ehiza kirol bezala ulertzen duen pertsona baten ikuspuntua ulertu behar da. Ez dugu ahaztu behar, gainera, ehiza bai orduan, eta baita ziurrenik gaur egun ere, mundu mailan jardule gehien dituen kirola dela esatea ez dela inongo gehiegikeria. Hala ere, adinean gora ziola, ehiza lehiakor eta abenturazalearekiko zuen ikuskeran jarrera aldaketa nabarmena antzematen zaio. Nahiz eta 1953-1954 Safarian joan, hil ondoren argitaratutako memorietan, Egia Lehenengo Izpian (1999) eta Kilimanjaron azpian (2005) argi ikusten da aldaketa.

HEMINGWAY: LA CAZA

Una de las vertientes más importantes de la leyenda de Hemingway es el siguiente: Hemingway, el gran cazador blanco. A decir verdad, desde muy pequeño le gusto la caza. Practicó esta actividad en casi todos los lugares donde estuvo. Desde Michigan, pasando por España e Italia, hasta África. En su obra, las referencias sobre la caza son abundantes, siendo Las Verdes Colinas de Africa (1935) el ejemplo más significativo. Siguiendo la estela de Theodore Roosevelt, Hemingway nos cuenta el safari del que disfruto durante tres meses entre 1933-1934 gracias al generoso regalo del tío de Pauline Pfeiffer, su segunda esposa, Gus. Junto con ella, y su amigo Charles Thompson nos cuenta la competición entre el autor y Thompson, Karl en la narración. El objetivo era cazar el animal más grande. Antes de ir a este safari, en noviembre estuvo cazando por Extremadura con su amigo, el pinto Luis Quintanilla (1893-1978). Ese mismo agosto participo en el IV. mundial de Tiro-Pichón celebrado en las campas de Gudamendí, recién estrenadas para la ocasión. Coincidió en ese campeonato con el afamado sportman eibarrés Victor Sarasqueta (1912-1979).

Desde el punto de vista actual, las actitudes hacia la caza nos pueden parecer anacrónicas y hasta salvajes. Eso sí, debemos de ponernos en la piel de una persona que entiende la caza como un deporte. Además, es necesario remarcar que la caza era entonces, como seguramente lo sea ahora, uno de los deportes más practicados. Sin embargo, las actitudes de Hemingway respecto a dicha actividad fueron variando a lo largo de su vida. A pesar de volver en 1953-1954 a África para disfrutar de otro safari, la caza aventurera-deportiva da paso a una más naturalista. Son ejemplo de este giro las memorias póstumas Al romper el alba (1999) y Debajo del Kilimanjaro (2005).

